

# Internet eta kontzeptu sozio-moralen irakaskuntza

---

*Santiago Palacios*

*Universidad Pública de Navarra*

*La enseñanza de contenidos socio-morales encierra características específicas que se derivan de la idea compartida por autores como Piaget y Kohlberg acerca de que es la interacción con los iguales uno de los motores principales que posibilitan el cambio de las estructuras intelectuales. En este contexto, el auge e implantación de los nuevos medios de comunicación (Internet) cobra importancia no sólo por aumentar la información sino que supone una transformación del propio concepto de comunicación. Las redes de información se caracterizan por ser bidireccionales y abiertas a la participación, demandando de los usuarios una buena capacidad tanto para recibir informaciones como para generarlas. Por ello, su incorporación a la enseñanza se hace necesaria tanto como contenido conceptual como medio y herramienta para alcanzar otros conocimientos. Con el fin de comenzar este camino recogemos un amplio número de direcciones electrónicas o páginas Web donde tanto los alumnos como el profesorado encontrarán información relacionada con la paz, las guerras, las injusticias, la insumisión y la desobediencia civil, la democracia y temas afines.*

Palabras clave: *Redes de información, internet, contenidos sociomorales.*

*The teaching of social and moral contents involves specific characteristics that stem from the idea shared by authors like Piaget and Kohlberg about that it is the interaction with peers one of the main factor that enables the change of the intellectual structures. In this context, the development and increase in the new media (Internet) is important not only due to the rise in the available information but also because it entails a change in the concept of communication. The information nets are characterized being two-way and opened to the participation, demanding of users a good capacity to receive information as well as to generate it. That is why its incorporation into the education is so necessary both as conceptual content and as a way or tool to reach other knowledge. In order to begin this way we gather together a wide number of electronics addresses or Web where students as well teachers will find information on the peace, wars, injustices, civil disobedience, democracy and related topics.*

Key word: *Informational nets, internet, social and moral contents.*

*Edukin soziomoraleen irakaskuntzan zenbait ezaugarri berezi isladatzen dira, berdinekin sortutako elkareragintasan egitura intelektualak eraldatzeko, eraberritzeko eta sora-razteko duen garrantziari buruzko ideiarri dagozkionak (Piaget nahiz Kohlberg), alegia. Kontextu honetan, Internet eta komunikazio bide berrien hazkunde eta hedadura kontuan hartu behar dira, besteak beste, komunikazio kontzeptua bera eraldarazi baitu. Informazio sareek norabide bikoak izateaz gain partehartzailetasuna bultzatu ere egiten dute. Azken honek erabiltzaileari exigitzen dio informazio jasotzeko nahiz eratzeko ahalmenak izatea. Hau dela eta, irakaskuntzari sare hauen sarbidea bilatzea ezinbestekoa zaio, edukin kontzeptuala ala prozedurazkoen artean. Sarbide honen lehen urratsak eman ahal izateko oztopo eta eragozpenak gainditu beharko direlakoan, irakasleari hasierako hurbilketa erraztu nahi diogu Interneteko helbide zerrenda eskainiz. Zerrenda honetan bakea, gatazka, zilegitasun eza, eta desobedientzia zibilari buruzko informazio ugari eta anitza eskuratu ahal izango dute irakasleek*

Giltzarriak: *Informazio sareak, internet, edukin soziomoral.*

Artikulu honetan azken urteotan sortu diren komunikabide berrien erabilpena aldarrikatu nahi dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuran izan dezakeen baliogarritasuna argituz. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten baliabide berri hauek bereziki agertzen dira emankorrak kontzeptu sozio-moralen irakaskuntza-ikaskuntzan. Izan ere, garapen sozio-morala eta honekin batera gertatzen den ezagupenaz arduratu diren egileak eta teoria psikologikoak (Piaget, Kohlberg, Turiel...) arlo honen hazkundearen deskribapena egiteko pertsonen arteko elkareragintasunaren poderioan oinarritu dira behin baino gehiagotan. Beraz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako proposatu ohi diren ekintzak pertsonen arteko iritzi, ideia eta arrazoinketen amankomunean jartzera zuzenduak izatea oso arrunta da.

Gaur egun, komunikabideen aurrerapen teknologiko izugarriaren ondorioz, mundu osoko informazioa elkartrukatzeko tresneria edonoren eskura dago. Zentzu honetan aipatu beharrekoa da komunikabideetan gertatutako aldaketak neurri handi batean ez dela bakarrik teknologia mailan gertatu baizik eta komunikazio kontzeptuan baitan ere bai. Hau da, orain arte ezagutu dugun komunikabide eredia (egunkaria, irrati, telebista, etabar...) norabide bakarrekoa zen, komunikabide-tresneriaren jabedunak nahi zuena igortzen zen, komunikabideen poterea areagotuz. Gaur, Internet eta beste sare telematikoek eskaintzen duten eredia, berriz, norabide bikoia da, hau da, informazioaren emaile eta jasotzilen arteko mugak desagertu egin dira.

Guzti hau kontuan hartuz, hezkuntza sistema osoak eta gelaren eguneroko zereginak zeharkatu behar duten atea hor dagoela irekita eta etorkizunerako apustu berriak planteiatzen ari direla azpimarratu nahi dugu. Apustu honi aurre egiteko asmoz, artikulu honetan jasotzen dugu alde batetik garapen sozio-moralari buruzko teoria psikologiko nagusien ikuspuntu ezberdinak eta ondorioztatzen dituzten hezkuntzarako proposamenak. Geroxeago, proposamen hauek aurrera eramateko baliabide edo teknika zehatzagoak zerrendatuko ditugu. Bukatzeko eta proposatutako edukiak lantzeko, Internet sarean aurkitu dezakegun zenbait orrialde interesgarri aurkezten dugu, bana-banako deskribapen txiki bat eginez.

Hala ere, gai hauen irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako Internetek eskeintzen dituen baliabide guztiak zerrendatzea ez dela artikuluaren helburua esan beharra dago. Izan ere, zerrendatze eginkizun hau katalogoei dagokielako eta, beste aldetik, Internet sarea ezagutzen duenak ondo baino hobeto dakien bezala, honelako ahaleginak burutzea erabat mugaturik dagoelako. Lehen esan dugunez, Internet sare irekia da eta informazioa erabat aldakorra suertatzen da erabiltzaile guztien eskuetan sarearen eskeintza pausatzen baita.

## **1. GARAPEN SOZIO - MORALARI BURUZKO TEORÍA PSIKOLOGIKOEN IKUSPUNTUA**

Atal honetan, Piagetek eta Kohlbergekin adierazitako pertsonen arteko elkareragintasunaren garrantzia azpimarratzen duten ideiak batzuk aipatuko ditugu. Beraz, inork espero ez dezala teori hauen deskribapen zabala aurkitzea, aurrerago jorratzen diren irakaskuntza-ikaskuntza baliabidei dagozkien zertzelada xume batzuk besterik ez baitira.

Bi ikuspuntu teoriko hauek enbor berdinetik jaiok dira. Izan ere, biak aspektu kognitiboetan oinarrituz aztertzen dute moralitatea eta neurri handi batean Kohlbergen kontzepzioan Piageten jarraipena kontsideratu daiteke. Biak, beraz, aspektu kognitiboen garapenaz arduratu dira eta honen ondorioz moralitatearen garapenaren sekuentzia ebolutiboa aldarrikatu dute. Besteak beste, justizia, berdintasuna, rol trukaketa, ikuspuntu aldaketa, gatazka eta antzeko kontzeptuak erabiltzen dira garapen sozio-morala deskribatzeko.

## **Piaget**

Piagetentzat garapen morala bi estadiotan gauzatzen da: heteronomoa eta autonomoa. Estadio heteronomoan, arau moralen ulermena oso murrizta da bi akats kognitibo agertzen direlako. Lehenik, gertaera objektibo eta subjektiboaren arteko bereizketa ezinezkoa zaio umeari, eta honen ondorioz, arauak helduen kontutzat, hau da, kanpoko errealitatea tinkotzat jotzen ditu. Bigarrenean, umeak bere ikuspuntua besteen ikuspuntuarekin nahasten du. Piagetek lehenengoa, "errealismo" izendatzen du eta "egozentrismo", bigarrena.

Bi akats honen ondorioz, arau moralak aldakorak agertzen dira, helburu eta pertsona bakoitzaren menpe daudelako. 7 urte bete arte, ume heteronomoak gertaera edo ekintza baten larritasuna ekintzak sorten duen galera edo kalte fisikoa kontuan hartuz juzkatzen du, ekintzaren intentzioari dagokion gogoeta baztertuz edo, hobeto esanda, ezin ikusiz. Estadio autonomoan berriz, auzi morala egiterakoan intentzionalitateak hartzen du lehentasuna, auzitutako gertaerak ekar ditzakeen ondorioen gainetik kokatuz.

Esate baterako, etapa heteronomoan, umeak nahiagabe 15 katilu apurtzea larriago jotzen du nahita apurtutako katilu bat baino, ondorioz, ume txikiaren uestetan, 15 katiluren apurketa zigor gogorragoa mereziko du. Hurrengo estadioan, berriz, auziaren norabidea erabat kontrakoa da, intentzioa kontuan hartzen baita.

Hala eta gutiz, deskribapen honen inguruan egindako ikerketek baieztapen ezosoa ekarri zutela gogora ekarri behar da. Horrexegatik agian, Kohlbergekin konfliktu morala hipotetikoen aurrean emandako erantzuna aztertu zuen garapen sozio-morala sei estadioetan deskribatzeko. Jakina denez, Piagetek umearen garapen moralari dedikatutako arreta eskasa izan zen eta umeen jokuen arauen azterketan oinarritu zen.

## **Kohlberg**

Kohlbergentzat garapen morala prozesu luze eta konplexua da, ez ordea Piagetentzat, zeren eta garapena morala moraltasun heteronomotik autonomora igarotze sinple bat bezala deskribatzen baitu. Kohlbergekin, alderantziz, maila batetik bestera pasatzea ez ezik, estadio batetik bestera igarotzea ere pentsamendu ihardunean aldaketa sakona suposatzen duela adierazten du.

Aipatu dugunez, egile honek garapen morala sei estadioetan banatzen dela proposatzen du eta sei estadio hauek hiru pentsamendu maila ezberdinetan laburbilt-

zen dira, maila bakoitzean bi estadio jasota. Sei estadioak hauexek dira: 1) Obedientzia eta zigorrerako orientazioa, 2) Hedonismo instrumental amarrugabekoa, 3) Pertsona onaren moralitatea, hau da, harreman onak mantentzea eta bestengandik errespetua jasotzea bilatzen duena, 4) Autoridade mantentzearen moralitatea, 5) Onartutako hitzarmenaren eta lege demokratikoaren moralitatea, eta 6) norberaren kontzientziaren printzipioetan oinarritutako moralitatea.

Kohlbergentzat sei estadio hauek benetako garapen morala osatzen dute eta osaturiko sekuentzia aldaezina gertatzen da, hau da, pentsamenduaren modu garatuagoak eskura ahal izateko alde zuzenetik lehenagokoa bereganatzea ezinbestekoa da. Izan ere, ez dago 1. estadiotik 4.era igarotze zuzenik, ezta 2.etik 4.era ere ez. Estadio baten eskurapenak aurrekoaren pentsamendu moduen birantolaketa ekartzen du eta birmoldaketa hauek alboko estadioetan aurkitzen dute beren muga. Are gehiago, garapena bide bakarrekota dela mantentzen da. Honek zera esan nahi du: estadio baten pentsamoldea eskuratu gero ez dago atzeko biderik, aurreko pentsamoldearen arrastoak agertzen badira ere.

Izan ere, Turielek adierazi zuenez, ume batek dagoen baino estadio altuagoaren pentsamendua behekoarena baino askoz hobeto uler dezake. Garapenaren norabide hau azaltzeko inguru sozial eta norberarekiko egokitzapenaren ondorioz azaltzen da. Izan ere, goiko estadioetan erabiltzen diren pentsamoldeak baliogariagoak dira, dudarik gabe, gizasemeak egin behar duen pentsamenduaren birmoldaketa asetzeko.

Aspektu teoriko hauek alde batera utzita, garapen sozio-moralak pentsamendu sistema birantolatzea eskatzen du, eta prozesu hau pertsona, ideia edo jokaeraren arteko elkareragintasunaren menpe dago. Horrela, Piagetentzat garapen sozio-moralak beste pertsonekin ezartzen diren harremanetan datza, beraz, moralitate mota bakoitzak harreman sozial jakin baten isla du bere baitan. Izan ere, Piagetek aipatzen dituen heteronomia eta autonomiaren estadioak besteekiko obedientzia eta berdintasunaren kontzeptuen iguruan igarotzen dira. Are gehiago, Piagetek norberaren garaikideekin ezartzen diren harremanak ezinbestekotzat jotzen ditu garapen morala gertatu ahal izateko, hau da, pentsamolde autonomo eskura dadin. Izan ere, beste berdinekin ezartzen diren harremanek berdintasunaren kontzeptuan onarritzeko elkareragintasunarako parada lehenengoz exijitzen diote umeari.

Antzeko moduan, garapen morala bultzatzeko Kohlbergek proposatzen duen ikaskuntza-ereduan elkareragintasunaren ondorioz suertatzen den ezinbesteko gatazka erabakiorra besteen ikuspuntua hartzeko ahalmen-prozesuarekin batera kokatzen ditu. Are zehatzago, Kohlbergen ikuspuntuan, eztabaida morala tresnarik garrantzitsuenetariko bat da garapen morala bultzatzeko. Hau dela eta, Kohlbergek elkareragintasuna lor dadin eztabaidarako eta erabakiak hartzeko esparrua eraiki dezakeen komunitate demokratiko bihurtzea eskola proposatzen du.

## **2. GARAPEN MORALA ETA IKASKUNTZA**

Orain arte azaldutako garapen morala laguntzeko gehien erabiltzen den tresneria, laburki esanda, hau da: Baloreen argitzapena, kontzeptu eraikuntzarako arike-

tak, role-model ariketak, dilema moralei buruzko eztabaida, ariketa autobiografikoak, role-playing, ulermen kritikorako ariketak, ekintza informatiboak, ikuspuntu sozio-afektiboak, norberaren erregulaziorako ariketak, giza ahalmenak, gatazka konponketarako ariketak.

Ikus daitekenez, elkareragintasanak sortutako gatazka bilatzen dute ekintza gehienek Izan ere, gatazka eraikitzailea modu ezberdinetan sor daiteke, besteak beste, barneko ideiei eta informazio eta kanpoko edota informazio berriagoen artekoa, besteen ideiak eta norberaren artekoa, norberaren pentsamolde eta jokaeraren artekoa...

Debateak eta eztabaidak dira aipatutako gatazka azalarazteko erabilgarrienak eta honetarako bai eguneroko gertaerak aztergaitzat ala eztabaidagaitzat hartuz bai komunikabideetan agertutako gertaeraz baliatu ohi gara. Gehienetan, debateen prestatuntzarako informazio bilketa ezinbestekoa ezezik ekintza aberatza ere bilaka daiteke, eduki kontzeptualaz gain prozedurazkoak ere jorratzeko ezinhobeak baita. Informazio bilketak garatzen duen beste arlo interesgarri bat besteen ikuspuntuak hartzeko ahalmena daukagu.

Gaur egun informazio bilketarako dauzkagun baliabideen artean Internet da dudarik gabe tresna indartsuenetarikoa bat. Izan ere, informazioa eskuratzeko ezinhobeak izateaz aparte besteekin harremanetan jartzeko eta norberaren ideiak adierazi eta zabaltzeko egokia ere bada. Askotan aipatu denez, Internet sarea beste komunikabidearen formula gainditzen du, hau da, informazioa ez dago norabide bakar batean zuzendurik, baizik eta norabidea bikoa da, norberak nahi duen informazioa ere jar baitezake. Zentzu honetan, oso komunikabide demokratikotzat jo dezakegu Internet sarea.

Baina bestelako tresneria guztiarekin gertatzen den bezala tresna bakoitza ona ala txarra denaren auzia erabakiko duena erabilpena bera izango da. Izan ere, Internetaren birtutea, hau da, informazioa eskuratzeko paregabetasuna, baita akats eta ahulezi ere bihur daiteke, informazioaren kopurua gehiegi izan baitaiteke eta benetako informazio interesgarria informazio interesatuetatik bereiztea zaila suertatzen delako.

Aspektu hauek zaintzea irakasleari dagokio eta horretarako ezinbestekoa zaio, Internet ikaskuntza-baliabide bezala erabili nahi izatekotan, sareari aurreko miaketa egitea eta helbide interesgarienen berri izaten hastea. Internet sarean sartuz gero galtzeko, norabide gabe ibiltzeko, benetako arriskua dagoela azpimarratu behar da. Horretarako sareak berak eskeintzen duen bilatze-tresneria erabiltzea beharrezko da. Hala ere, pentsa daitekeen baino zeregin astun eta nekegarriagoa izaten ohi da bilatze prozesu hau.

Zeregin hau leuntzea da, hain zuzen ere, artikulua honen helburua. Zehatz mehatz, bake, guda, kontzientzia eragozpen, justizia (eza), berdintasuna, demokrazia eta, batez ere, intsumisioari buruzko informazioa eta beste baliabide eskeintzen dituzten Interneteko helbide sorta bat argira ateratzea, irakaslearen hasierako lana errazteko asmoz.


Helbideen zerrendari hasiera eman aurretik, helbideak hautatzeko erabilitako

kriterioa orrialdeen edukiera izan dela argitu behar da, eta ez orrialdearen garapen teknikoa. Hala ere, aurkezten ditugun helbide gehienetan alde formal nahiz edukierari buruzko deskribapena egingo da. Izan ere, orrialde gehienetan, geure eta ikasle-en iritzia helarazteko aukera eskeiniko da e-mail baten bidez, beste askotan ere, bana-keta zerrenda eta FTP serbitzuak ere eskeiniko dira. Tresna hauek eta berealdiko hizketaldi guneak (Chat), WWW orrialdea eraikuntzak eta News atalak Internet derit-zon sare honen eskeintza zabalak osatzen dute.

### 3. INTERNETEKO HELBIDE INTERESGARRI

Atal honekin hasteko, euskara hutsean egindako orrialde bat aurkeztuko dugu, helbidean intsumisioarekin zerikusirik duten informazioa, testuak eta eztabaidaguneak aurkitu ahal dira. Orrialde hau Gorlizeko eta Plentziako Txantxarro antimilitarista taldeak egindakoa da.

**IMAGEN 1**



Gai honi buruzko informazio gehiago lortu nahi bada Irungo Talde antimilitaristak, Kakitzat, aurketzen digun orrialdean Eragozpen Fiskalari buruzko informazio oso interesgarria daukagu. Zer den, nola eta noiz egin behar den, justifikapenak eta ondorioak edonork uler dezakeen modu batean azaltzen dira.

Intsumisioari buruzko beste ikuspuntu aztertzeko, Valentziako KEMek (Kontzientzi Eragozpenaren Mugimendua) sarean jarritako orrialde hau kontuan hartu beharko litzateke. Bertan, KEMeko abiaburuak eta oinarri ideologikoak aldarrikatzen dira, halaber, beste link interesgarri batzuk eskeintzen dizkigu. Orrialde gehienetan gertatzen den bezala harremanetan jartzeko aukera ere badago. Orrialde hau helbidean aurki daiteke.

Hildo honetatik jarraituz, Intsumisoren gaia modu zehatzago batean jorratzen duen beste orrialde bat, Intsumisio Egunaren inguruko ospakizunaren antolatzaileek eraikitako web hau daukagu. Honetan, Intsumisio egun berean zein aurrekoetan burutuko diren ekintaldien zerrenda eta beste zehaztasun aurketzen dira. Beste alde-tik, intsumisiori buruzko Web orrialde ireki eta zabal bat martxan jartzeko proposa-mena lutzatzen da, zibernauten laguntza eta partizipazioa eskatuz.

**IMAGEN 2**



Ingeleraz soilik idatzitako orrialdeen artean bi helbide aipatzekoak dira, alde batetik helbidean informazio osoa eta anitza jaso dezakegu. Biolentziaren erabilpenaren aurkako ikuspuntutik abiatzen da baina ekintzarako proposamen zehatzen eztabaidarako lekua ere bada, eta beste orrialde guztiekin bezala, oso link interesgarri zerrenda eskeintzen digu. Berez, Estatu Batuetako orrialdea izanik, proposatutako link hauen artean Europako ikuspuntuak ere eskura ditzakegu. Esate baterako, Europako Gudaren Erresistenteen Ligarena oso horniturik datorkigu. Izan ere, une honetan irakur daitezkeen artikulu sakon eta zehatzagoen artean ondorengoak dira aipagarrienak: zergak eta bakea, estadia eta kontzientzia, zergatik militarra izan?, ekintza zuzena, ekonomia eta sinpletasuna.

IMAGEN 3



Intsumisioari buruzko artikulu akademikoak aurkitu ahal dira ondorengo helbidetan. eta . Artikulu hauek "Revista de Psicodidactica" izeneko aldizkarian agertu dira. Aldizkari honek argitaratutako beste artikuluak kontsulta nahi izanez gero helbidera jo daiteke. Aldizkariaren eduki eta artikulu-laburpenaz gain (Psikodidaktikako Elkarte Kultur-Zientifiko) KEMENaren aurkezpena eta Psikodidaktikako Dotoregoari dagozkion kurtsoen berri ere ematen da.

IMAGEN 4



Lehen aipatu dugunez, intsumisioari eta eragozpenari buruzko link zerrenda osatuena, beharbada EUSNETen orrialdean dago. Sare honek aurkezten dizkigun helbide gehienak jarraian deskribatuko ditugunez, ez dugu EUSNETen orrialdeari buruz gehiago aipatuko. Hala ere, azpimarratu behar da euskeraz egindako web-orrialdeek osatutako gune onenatariko bat dela, zalantzarik gabe.

Alemaniko ejerzito eta gastu militarren aurkako kanpainari buruzko informazio ugari eta interesgarria helbidean aurki daiteke. Harrigarria bada ere, testu bat-

zuk gazteleraz ere agertzen dira, insumiso bati egindako elkarrizketa, alegia. Hala ere, orrialde honen hizkuntzak alemaniera eta ingelera dira.

**The Institute of Peace** erakundeak nazioarteko bakerako ezinbestekoak diren ikerketa eta entrenamendua bultzatzen ditu. Orrialdean gatazka-konponketa eta atzeritako gaiei buruzko posta elektronikoz iragarritako informazioen hautapenez gain informazio ugari, banaketa-zerrenda eta Berri-taldeak (Newsgroups), aplikazioak eta beste zerbitzu batzuk eskeintzen da. Ipar Irlanda eta Hego Afrikari buruzko informazio sakon eta ugaria ere badago helbidean

BICC Bonn International Center for Conversion, lukurik gabeko erakunde honek ejerzito eta armagintzan ahitzen diren dirutza, baliabide, pertsona eta bestelako errekurso ekintza alternatibo eta zibilera desbideratzeko ekimenak bultzatu, lagundu eta martxan jartzen ditu. Beraz, gune honetan errekurso birmoldaketa proiektu, dokumentazio, ikerketak eta kontsulta-zerbitzuak eskeintzen da.

#### IMAGEN 5



**War and Peace Foundation** erakunde armagintza eta bereziki arma nuklearen murrizketaren aldeko erakunde da. Abolizio izeneko batzarraren aldarrikapena eskeintzen du. Erakunde honek Arma Nuklearen Ez Areagotzearen Hitzarmena gainbegiratze lanetan parte hartzen du. War and Peace Foundation-en orrialdea helbidean aurkitzen da

**The Peace and Conflict Archives** orrialdea Estatu batuak Colorado Unibertsitateak mantentzen du gatazkari buruzko posta elektronikoen bidez dokumentuak koordinatu eta bultzatzeko asmoz. Informazio Elkartrukaketa zerbitzua eskeintzen du, ziberezpazioko 20 ikerketek 55.000 aipamen bibliografikoak osatutako 13 fitxategi eskeintzen ditu ondorengo bi helbide ezberdinetan: , lehenabazia, eta, bigarrena .

Helbidean legeen arloraino ikuspuntu zientifikoa helarazteko lan egiten duen "influentzia"-taldearen aurkezpena daukagu. Bertan martxan dauden proiektu, kanpaina eta ekintzen berri ematen dute. Tratatzen dituzten gaiak besteak beste armagintza industria, armen salmenta, espazio-politika, segurtasun oro eta bakea dira. Public Interest Report (PIR) bihilabetekariarekiko lotura (link) ere agertzen da.

. Hemen Ekialde eta Europa ertaineko bake mugimenduei buruzko informazio bibliografikoa bilatu nahi duenarentzat oso baliabide interesgarria izan ahal da. Hungarian 1980. urtean izandako gertaerak eta aldaketaz bereziki arduratzen da. Dokumentuak, 1.000 baino gehiago, zerrendatu, sailkatu eta laburturik agertzen dira.

**Stanford Unibertsitateko Bake, Guda eta Iraultzako Hoover institutoan** (The Hoover Institution on War, Revolution and Peace at Stanford University) martxan dauden ikerketa, argitarapenak eta artxibo eta liburutegian dagoen bestelako



informazioa eskeintzen da.

IGC Network erakunde hau PeaceNet, EcoNet, ConflictNet, LaborNet and WomensNet sareak babesten ditu. Eta helburu nagusia bakea, ingurugiro, osasuna, giza eskubideak, garapen justu eta orekatua eta biolentziarik gabeko gatazka konponketari buruzko informazioa iragartzea da. Link hau oso interesgarria da, geroago orrialde honetako loturak dekribatzerakoan ikusiko dugunez.

### IMAGEN 6



Britain Haundiko orrialde honetan **International Boundaries Research Unit (IBRU)** erakundea biolentziarik gabeko gatazka konponketaz arduratzen da. Erantzuna eman nahi dituen gatazkak itsasoko zein lurreko mugek sortutakoak dira. Informazioa eskuratzeko datu base bat, baita saiakerak eta artikuluak ere, ahaztu gabe, dagokion beste link interesgarrien zerrenda eskeintzen du orrialde honek. Honetaz gain erakunde berari buruzko informazio ugari (argitarapenak, ekimenak, ...) eskura daiteke.

IAN orrialde honek Nazioarteko Gaiei buruzko mundu osoko informazio-sareen gida izan nahi du. Gidaren baliabideak mota eta edukiaren arabera antolatzen dira. Ekialde eta Europa Ertaina eta Estatu Independiente berriez arduratzen diren erakundeak bultzatzeko proiektu baten ondorioa da orrialde hau.

Banaketa zerrenda honetan nazioarteko gatazkari buruzko teoriak eta kasu zehataz azaltzen dira, eta, beriziki, biolentziaren erabilpena egiten direnak. Nazioarteko gatazkaz gain, mugaz kanpoko eragina sortzen dituzten barne gatazkak ere kontuan hartzen dira.

Institute for War and Peace Reporting (IWPR). Britain Haundiko erakunde honek gatazkari buruzko informazioa zein formazioa zabaltzea du helburu. Honetaz gain "giza-laguntza" bultzatzen du eta populazioa zibilerako elkarleku bihurtu nahi da. Esate baterako, orrialde honetan Balkan eta Kaukasoko gatazka barru-barrutik bizi diren kazetari, ikerlari eta demokratizaleen ekimenak iragarri eta elkartrukatzeko aukera ematen da. Orrialde honek erakundearen argitarapen "on-line" eta gai honekin zerikusirik duten beste helbide batzuk eskeintzen ditu.

**www.sipri.se** (SIPRI) Stockholm International Peace Research Institute. Fundazio independente hau nazioarteko gatazkari irtenbide baketsu eta bake iraunkorra ezagutzera emateko sortua da. Abian dauden ikerketa-lana armagintza, bere murrizketa eta mugatzearen inguruan kokatzen da. SIPRIren lan-ikerketa arazo politikoetan oinarritzen da eta ematen duen armagintza eta bere murrizketari buruzko informazioa inpartziala da. Behar bezala, argitarapen eta liburutegien zerbitzua eskura jartzen da.

## IMAGEN 7



Helbide honetan Finlandiako Unibertsitateko Giza Zientzien Ikerketa institutua daukagu. Institutoaren langilego, argitarapenak eta beste hainbesteetaz gain, Giza Zientziaren arazo teorikoez ere arduratzen den ASSOCIATIONS izeneko aldizkaria ere aurkitzen da bertan. Ikerketa zentru hau Work Ikerketa Zentrua eta Tampere Ikerketa Institutoarekin batera dago osaturik.

Helbide honetan bakea, giza talde garapena, ingurugiroari buruzko informazioa iragarri eta jasotzeko GreenNet izeneko sare-konputagailua daukagu. Sare honek lukururik gabeko elkarte baten babespena du. Orrialdean, alde batetik, elkar-teak eskeitzen dituen zerbitzuak ezagutzera ematen da eta, bestetik, beste link interesgarri batzuk bisitatzeko aukera.

**www.cfsc.dnd.ca** Orrialde honetan Kanadiako Informazio Baliabide Zentrua aurkezten zaigu. Orrialdeak Kanadiako ejerzitoaren babesa du eta informazioa ingeleraz zein frantsesaz agertzen da. Interneteko baliabideen artean ondorengo gaiei buruzko informazioa aurki dezakegu: defentsa, munduko ejerzitoak, gaurko gatazkak, nazioarteko harremanak, arte militarra eta bake mantenimendua. Liburu, artikulu, hitzaldi eta ihardunaldiei buruzko informazioa jasotzen duen Bakea eta Segurtasunerako datu baserako sarrera ere eskeintzen du.

Berkeley Digital Library SunSITE Web honetan testu, artikulu eta liburu osoak eskuratzeko sistema eskeintzen da. Esate baterako, sistema honetan aurkitu ahal da ondorengo helbidea:

Helbide honetan, dudarik gabe, desobedientzia zibilari buruz idatzitako liburu garrantzitsuenetariko bat daukagu. Thoreauk berak idatzitako Desobedientzia zibila izeneko liburua, alegia.

## IMAGEN 8



Helbide honetan Mitch Friedmanek, Ecosystem Alliance delako ekologi-taldearen zuzendariak, 1996.eko aktibista aintzindarien bilgunean emandako hitzaldia jasotzen da. Hitzaldiaren izenburua "Desobedientzia zibila estrategia bezala, ez kultura" (Civil disobedience as tactic, not culture) da. Orrialde honetara heltzeko gero-

ago deskribatzen dugun ACT UP erakundearen orrialdetik abiatzea gomendatzen dugu.

Helbide honetan ohiko orrialde Web aurkitu beharrean Banaketa zerrenda deritzona daukagu. Banaketa zerrendak gai baten inguruan eztabaida eta ideien elkartrukaketa aurrera eraman nahi dutenentzako guneak dira. Zerrenda hau euskal herriarekin zerikusia duten gaien inguruan kokatzen da. Beraz, ikasleentzat interesgarriak diren gaietarako buruzko ideiak, proposamenak edo gogoetak iragartzeko aproposa izan ahal da.

**EPITELIO** izenarekin aurkezten den proiektu honek bitxia bezain interesgarria dela ematen du. Proiektuak garapen teknologikoak baztertutako pertsonen gizarteratzea du helburu. Orrialdea berak eta bertan aurrera eraman nahi den proiektuak garapen eskasa dute oraindik, beraz, hilabete batzuk barru bisitatzeko utzi ahal da.

**. Social Science Information Gateway (SOSIG)** Giza Zientziaren hezkuntza eta ikerkuntzarako Interneteko ehundaka baliabide garrantzitsuren katalogo bat da. Baliabide guztiak aukeratuak dira eta edukinaren arabera sailakatu izan dira. Orrialdean bertan informazioa bilatzeko behar den tresneria ere badago.

**www.actupny.org ACT UP** erakunde-mugimenduaren orrialde honetan homosexualitatearen inguruan eta bereziki HIESaren krisialdiaren aurrean ekintza zuzena eta konpromezu zorrotza isladatzen da. Oso orrialde hornitua da, esate baterako, desobedientzi zibilari buruzko informazio ugari jasotzen da. Besteak beste, lehen aurkezten dugun Mitch Friedman-en hitzaldiaren orrialdea.

## IMAGEN 9



MLK Directory. Orrialde honetan Martin Luther King-ek idatzitako testuak jasotzen dira. Orrialdea Stanford Unibertsitatearen laguntzaz eraiki eta etengabe mantendu egiten da.

Martin Luther King-i buruzko beste orrialde bat. Bai edukieragatik bai informazio kopuruagatik orrialdea hau izugarria da. Izan ere, Martin Luther King eta beltzen eskubideen aldekoaren inguruko nahi adina informazioa eskura daiteke. Estatu Batuetako Alderdi Demokratikoak egindakoa.

Orrialde hau bisitatzeko etikako irakasle eta ikasleentzat ezinbestekotzat jo behar da. Etika arloan gaur egun pil-pilean dauden gaietarako buruzko liburu informazio eguneratua, akademikoa zein sinpleagoa, eskeintzen du. Bistatu beharreko orrialdea, dudarik gabe.

Orrialde honek, Estatu batuetako Brown unibertsitateari buruzko informazioa dakarkigu. Unibertsitatearen liburutegiaren sarrera, argitarpenetarako buruzko informa-


zioa eta departamendu bakoitzaren orrialdeak eskeintzen dira. Adibide gisa, jarraian deskribatzen den Filosofiaren departamendukoa har dezakegu:

Departamendu honek **BEARS** delako artikulu elektroniko bilatzeko zerbitzua eskeintzen du, moraltasun eta filosofiari buruzko aldizkari eta mintegietan miatzeko aukera emanez. Aurki daitezkeen artikulua luze eta sakonak dira, beraz irakasleentzat besterik ez dugu gomendatzen.

**Injustice studies** izenpean nazioarteko "on-line" delako aldizkari hau aurkitzen dugu. "On-line" edo, bestela esanda, aldizkari elektronikoak, zera esan nahi du: sarean bertan eraiki eta garatzen den aldizkaria. Aldizkariaren helburua munduan zehar gertatzen diren injuztiziak jakitera ematea eta arreta akademikoa ezararazten laguntzea da. Ongietorriak dira injuztiziaren izaera, motak, eta historia jorratzen duten artikulua, baita politika eta psikologia morala jorratzen dituztenak ere. Edukinak globala zein tokikoak izan daitezke. Zoritxarrez orrialdea eraiki gabe dago, baina etorkizunari begira oso emankorra izan daiteke.

**WebActiva** izeneko orrialde honetan aniztasuna da ezaugarri nabarmena, hala ere, Estatu Batuetakoa dela kontuan hartzen bada ez da harrizkoa. Internet sarearekin eskuratutako garapen teknikoaz baliatuz izugarri bezain heterogeneoak suertatzen dira gehienetan bertan egindako orrialde asko. Honek ez du edukin interesgarriak agertzen ez direnik esan nahi baina edukin hauek eskura ahal izateko beste informazio interesatu edo azalekoa baztertuz deskubritu behar da. Beraz helbidean gai ezberdinen zerrenda bisitatzeko parada izango duzu.

#### IMAGEN 10



**www.igc.apc.org/justice JusticeNet** delako sare telematiko hau lehendik aipatutako IGC sare barruan agertzen da. Helburuak honako hau da: sistema penalarri eta kartzelako munduari so egiten duten kolektibo eta pertsonen zuzendutako zerbitzu "on-line" eskeintzea. Beraz, orrialde hau oso tresna erabilgarria da hezitzaileentzat eta, oro har, giza justizia eta eskubideen alde aritzen diren pertsona guztientzat. Liburutegi honetan gai hauei buruzko informazio ugari eskeintzen da. Kartzela Aktibisten Errekurtso Zentrua (Prison Activist Resource Center; PARC) eta lehendik aipatutako IGC sare telematikoen baterako proiektu daukagu orrialde hau. IGC sareak babesten dituen beste azpisareak (PeaceNet, ConflictNet, WomensNet, EcoNet, eta Labor Net) ere bisitagarriak dira.

**Amnesty International** erakundea dagoeneko denok ezagutzen dugun nazioarteko giza-eskubideak defendatzarako garrantzitsuenetariko bat da, bai egindako lan eskeragatik bai lan hauek burutzeko erabiltzen den seriotasun metodologikoagatik. Kasu honetan beraz, onena da bisitatzeko eta eskeintzen dituen azpi-orrialdetan miatzea..

## IMAGEN 11



**Drug Reform Coordination Network** izeneko web honetan drogei buruzko politikak eta legealdia eztabaidatzeko eta eraldatzeko gunea daukagu. Izan ere, legalizazioaren aldeko dokumentu, iritzi eta proposamenak azaltzen dira.

**CNS Center for Nonproliferation Studies** erakunde honek nazioarteko arma nuklear, kimika, biologiko eta misilen hazkundeari aurre egin nahi dio. Ikerketa, testu eta artikuluen bilaketa tresnak eskeintzen ditu. [cns.miis.edu](http://cns.miis.edu).

## IMAGEN 12



**home.earthlink.net/~ynot The Injustice Line** honek denetik dakar, egile ospetsuek esandako pentsarazteko esaldi motzak, gertatzen diren injustizi zerrenda luze eta eguneratua, (bertan ikasleek ezagutzen dituztenak jartzeko aukera ere bada-go) eta antzeko gertaeren berri ematen du. Oso interesgarria izan daiteke ikasleei gogoeta eta hausnarketa eragiteko, baita eztabaida sortzeko ere.

**Oharra:** Artikuluan aipatzen diren helbide guztiei - <http://> -gehitu behar zaie.

## BIBLIOGRAFÍA

Álvarez, A. (1996). *HTML. Creación de páginas Web*. Madrid: Anaya.

Blázquez, F.J. (1995). *Estrategias de poder. Xenofobia. "Limpieza étnica". Insumisión*. Estella: EVD.

Bolívar, A. (1993). *Diseño Curricular, de ética para la enseñanza secundaria obligatoria*. Madrid: Editorial Síntesis.

Díaz-Aguado, M; Medrano, C. (1994). *Educación y razonamiento moral*. Bilbao: Mensajero.

- Goñi, A. (1992). *La educación social. Un reto para la escuela*. Barcelona: Graó.
- Etxebarria, X. (1996). Ética de la desobediencia civil. *Cuadernos Bakeaz*, 20: 1-11.
- Kohlberg, L. (1992). *Psicología del desarrollo moral*. Bilbao: DDB.
- Pérez-Delgado, E.; García-Ros, R. (1991). *La psicología del desarrollo moral*. Madrid: Pirámide.
- Puig, J.M. (1995). *La educación moral en la Enseñanza Obligatoria*. Barcelona: ICE-HORSORI.
- Soriano, R. (1991). *La desobediencia civil*. Barcelona: P.P.U.